

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

414/2026 Foru Agindua, irailaren 2koa. Bitarteko izendapena egitea Endika Ortiz Esquisabeli, Burgeluko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko

2026ko abuztuaren 27ko sarrera datarekin, Burgeluko Udalak Endika Ortiz Esquisabel bitarteko funtzionario izendatzeko eskatu zuen, Burgeluko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko, 2026ko irailaren 1etik aurrerako ondorioekin, lanpostua hutsik zegoelako.

Espedientean jasotzen denez, 2026ko uztailaren 27ko ALHAOn (85. zk.) iragarki bat argitaratu zen, lanpostu hori estatuturako gaikuntza duen funtzionario batek behin-behineko izendapenaren, zerbitzu eginkizunen edo metaketaren bidez betetzeari buruzkoa, baina 2026ko abuztuaren 17ko eginbidean egiaztatzen denez, ez da inongo karrerako funtzionarioen eskaerarik jaso eskaerak aurkezteko epean.

Legutioko Udaleko lan poltsara jo da, beste toki erakunde batzuek erabiltzeko irekita baitago, baina lan poltsa osatzen duen inork ez du onartu.

Lanpostua ezin izan denez aurreko bitartekoen bidez bete, eta Arabako Errioxako Kuadrillak indarrean dagoen lan poltsa bat duenez, zeina izapidetu baita berdintasun, merezimendu, gaitasun, publizitate eta bizkortasun printzipioak beteta, lankidetzat hitzarmen bat formalizatu da idazkari-kontuhartzaileen lan poltsa lagatzeko. Hitzarmen horretan berariaz aipatzen da lan poltsa osatzen duten pertsonak aldez aurretik baimena eman dutela datuak lagatzeko, eta datuak babesteko araudia bete behar dela.

Zerrendako hurrenkerari zorrotz jarraituz, proposatzen den izendapena dela-eta, Arabako Errioxako Kuadrillako lan poltsan dagoen Endika Ortiz Esquisabel izan da lanpostua betetzeko prest dagoela adierazi duen lehena, eta lanpostua eskuratzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu ditu.

Estatuturako Gaikuntza duten Toki Administrazioako Funtzionarioen Araubide Juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 53. artikuluan xedatutakoari jarraitu zaio:

Ezinezkoa denean gordetako lanpostuak estatuturako gaikuntza duen toki administrazioako funtzionarioen bidez betetzea, eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginak 10.4 artikuluan xedatutakoa gorabehera, toki erakundeek autonomia erkidegoari proposatu ahal izango diote, betiere berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate irizpideak betez, bitarteko funtzionario bat izenda dezala, A1 azpitaldera sartzeko eskatutako tituluduna.

Edonola ere, kontuan izan behar da zer xedatzen duen Estatuturako gaikuntza duten toki administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 54. artikuluan:

“Lanpostua behin betiko bete, titularra itzuli kapitulu honetan jasotako kasuetan, edo behin-behineko izendapena eginez gero, zerbitzu eginkizunetan edo zeregin pilaketan, lanpostua aldi baterako funtzionario edo bitarteko funtzionario batek betetzen badu, automatikoki kargugabetuko da lanpostu hori betetzen ari zena.”

Bat etorri Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.4 artikuluan xedatutakoarekin, bitarteko funtzionarioaren izendapenetik hiru urte igarotakoan amaitu egingo da bitarteko harremana.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 53. artikuluan xedatutakoari jarraitu zaio.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian agindutakoa betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko 10/2023 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Endika Ortiz Esquisabel izendatzea, 2026ko irailaren 1etik aurrerako ondorioekin, Burgeluko Udaleko idazkari kontuhartzaile lanpostua bitarteko gisa betetzeko, hura legez bete arte, Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea Burgeluko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta hura ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. Jakinarazten zaizun erabaki hori behin betikoa da administrazio bidean eta haren aurka, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango duzu zuzenean Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorritik Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin. Nolanahi ere, aurrez aukerako errekerimendua egin ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 2a

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria

JAVIER GORBEÑA GARCÍA